

# ARRASATE PRESS


1992ko abenduak 30

175. zenb.



**Urte  
berri  
on!**

**Bakezko autoak.**



**RENAULT**

**MECA, S.A.**

Arrasateko  
RENAULT  
kontzesionario  
ofiziala.

## **BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

### **Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

# URTE BERRI ON! TABERNA

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

## Altzariak Diseinua Apainketa MARENAZA


Bizkaia, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

## OLA-OSTE

### KIROL DENDAK

## URTE BERRI ON OPA DIZUE ARRASATEAR GUZTIOI

Bizkaia Etorb. 10  
Tfnoa: 79 65 34  
ARRASATE



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Gernika, 1992ko abenduaren 22an

# Arantzazu, ene laguna!

**G**aur, abenduaren hogeitabi delarik, Santamasak Arrasaten, neure bizitza jadanik luze honen historia laburtua egiten ari naiz. Une batez, Jorge Luis gogoratu

dut eta nola dioskun **Verulameko** baroiaren **Instauratio magna** edota **Novum organum scientiarum**, bietariko zein ez dakit ziur, irakurri ondoren, historia gehiegi darabilgula eta hauxe dela gure sasoiaren gaitzetariko bat.

Arantzazu, berriz ere nik historia gauza arrisku-tua dela uste dut; baina, batzutan, sines egidazu, ez daukagu beste erremediorik eta halabeharrez ukitzen dugu, **besteei** utziz gero hartaz jabetzen baitira.

Urte mordoxka iragan da Vitoria-Gasteizen bizitu-biziatuz literatura atsegin genuen batzu **Aliziar**en etxean astero biltzen ginenetik (hamarren bat urte esango nuke). Inork ez daki lagun haiek gaur ere zenbat maite ditudan. Presentatuko dizkizut egunen batean.

Garai hartan entzun nuen lehenengoz **Joseba Irazuren** ahotik, **Bernardo** baino entzutetsuagoa zenean, harako **Ene laguna, etzazula** proiekturik egin *etorkizunerako*. *Apika bihar urrun egongo gara karabana honetatik. Hain urrun, nola dauden urrun orain duela zazpi mila urte partitu ziren haiek.*

Buruz ari nintzen eta bertsioa badaezpadakoa dela esan behar dizut, baina hunkigarria iruditu zitzaidan nonbait, gaur ere hunkigarri iruditzen zaidan bezalaxe, eta ene bizitzan proiektu gutxi egitea erabaki nuen. (Egia esan, oso urruti nabil karabana hartatik). Ene laguna, berba horiek, halere, **Nizam al Mulk, Hassán Sabbah**, 950ean hil zen **Al-Farabi** filosofoa eta **Kaspio Itsasotik** hurbil dauden **Daylam** mendiak liburutun ezagutzera bultzatu ninduten. **Bagdad** eta **Lahsa** hiria. **Ibn Babuwaihi** eta **Jayyam**. Baina batez ere, **Ommar Jayyamen Rubaiyyat**.

**Rubaiyyat** haietariko batzu buruz ikasi nituen eta ene memorian oso difuminaturik daude, liburua ez dakit nori erregalatu nionetik. Ia ia azkenekoz **Amsterdam** aldean erre nuen **Thai** hura bezain lauso.

Barkatuko didazu berriz ere buruz aritzeagatik, baina horrelako zerbait zioela uste dut beste poema batek: *Aste osoan zehar edanez gero, edan zazu ostiralez ere, sinisten duenarentzat ez bait dago*

*ostiral eta larunbata arteko ezberdintasunik. Egunak barik, -edo horrelako zoezer-maita ezazu Jainkoa.*

Tartean, egunak maite ez dituzten horiek, **Somaliako Mogadiscion Shilling** miserable bat ez zeukan neska koitaduari eman dizkioten hostiak ikusiko zenituela uste dut. Arantzazu adixkidea, gosea dagoenean traidore izateko arriskua dauka jan nahi duenak, bere inguruan prostituzioa instituzionalizatu izan arren.

Historia arrisksua da eta historia erromantikoa arrisksuagoa oraindio, Arantzazu maitea.

Belza **smoking** batez jantzirik agertzean, irakurri nuen non edo non, millonarioa izan liteke, edo kamareroa. Kamareroa bada, **kamarero beltza** eta millonarioa izanez gero, **millonarioa**.

Belza, koloreak bereizten du gizakiengandik. Eta historia erromantikoa bascoari pintatu dion sudurra inpresentablea bilakatu denean, euskalduna bere hizkuntzak bereizten omen du animalieingandik.

Ene laguna, gauzak errepatatzu gero, zoratuta gaudela pentsa daiteke. Gaur, abenduaren hogeitabian, Santamasak Arrasaten, egunkariko titullarrak: Vienatik dator notizia, **Serbiarrek bortxatutako andrak hil egin dituzte euren senarrek**. Bilbaotik beste bat, **Baserritarrek eta korbatadunak nahasian txorizoaren atzetik**.

**Mercedes Miláren** gonbidatuak telebistan hau idazten ari natzaizula esan duenak belza zurbilduko luke: Alaba tikiarekin doala bortxatu dute parke batean. Harez gero, harreman normalak izan ahal dituen galdetu dio **Milák**. Berak baietz erantzun du, harreman normalak izan ahal izan dituela gizonezko normalekin. Eta erantsi du, **inor ezin baduzu maitatu, orduan, zertarako nahi bizi**.

Ze emakume handia, Arantzazu.

Ene lagun, askoren ustetan harresia erori delako omen da gutzi hau. Harresiak ugari eraiki dira, baina: gezurra, askatasuna... hitzak.

Ez ote da musika denbora neurtzeko tresna ego-kiagoa historia baino.

Arantzazu, Gabonetan elkartuko garena uste dut, telefonoz esan nuzun bezala. Bitartean, zoriontsu izan zaitze, maite dituzun horiekin. Barkaidazu haserako sarrera aspergarri hori, orain ordu erdi izan dudan asperduraren islada.

Bihotzez,

JON IÑAKI LASA

### • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Behiardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitateak:** Kepa Oñden (77 06 90). **Administrazioak:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioak:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** J. J. Lengux  
**Modeloak:** Oier, Anuska eta Oihana **Estilismoak:** Gurutze Egiluz  
**Eropak:** Gili-Gili. **Esker beroziak:** Iñigo Arregi eta Pako Altuberi



**LIPOESKULTURA  
eta  
ZELULOLIPOLISIA**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

**ELGORRIAGA dk.  
Estetika Zentrua**

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiralez  
5etatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**

**ITSASKI**

**ARRANDEGIA**

**Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak**

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



**Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikuluak**

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**IZAGIRRE  
barategia**

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

**Auto-soinua  
Karburaioa  
Autoarentzako  
osagarriak**

Uribarri Etorbidea, 16  
ARRASATE 79 73 58



**AGUSTIN**

•••••

**Etsaien etsaiak**

**A** itak, *Etsaiaken* diska erosi berri dit Durangoko Azokan. Orain lagun batek eta nik diska honi buruzko iritzia emango dizuegu.

Badira talde batzuk zeintzuk oso diska onekin talde bezala duten "bideari" hasiera ematen dioten eta bide hau diska eskasekin amaitzen duten.

Talde honekin ez da berdina gertatzen. *Amen* maketa oso gogor sartu zen, Arrasateko Gaztetxean argi ikusi zenez. Hori izan zen jendetza talde honek bildu zuena!

*Amen* abestia eta *Kapitalismoa* errudun adibidez, maketatik atera eta orain askoz ere hobego bueltatu dizkigute bigarren diskara.

Azkeneko diskan, B aldean hain zuzen ere, ikusi egin daiteke abesti batzuk presa pixka batekin egin dituztela, *Berakatz* eta *Musika* adibidez. Baina hau, ez da arduratzekoa, lehen esan dizuegun bezala talde hau gorantz doa eta.

Gure ustez diska honek aurrekoaren arrakasta baino gehiago izango du. Beraz, badakizue, musika eta aukera izan ezker, *Etsaien etsaiak*.

**CEPI ETA EKI**

•••••

**Eskerrik Asko!**

**A** benduaren Sean amaitu zen Salto del Negrón urte honetan bertan dauden presoak burutzen zuten 3. gose-greba. Bukatu zen, baina baldintza berdinetan jarraitzen dute. Kartzelako zuzendaritza penintsulara aldatu zuten ez zegoen interlokutorerik eta euren osasun egoera egunetik egunera larriagotzen ari zelarik, gose-greba bertan behera uztea erabaki zuten. Edozein ezbehar dramatiko gertatu izan balitz ez zen egongo ez errudunik, ez arduradunik. Egia da Salto del Negrón egoera oso txarrean "bizi" direla, baina antzera gertatzen da beste hainbat espetxetan. Eta jadanik hasi dira txapeo eta beste zenbait protesta ekintzetan.

Egoera honek jarraitzen duen bitartean, Senideak ez da geldirik egongo eta ja-

rraituko du aurrerantzean bere protesta baketiarrak bultzatzen eta era berdinean, gizarteari, estatu espanyol eta frantsesetako kartzeletan gure senideei egiten dizkieten basatikeria guztiak erakusten. Komunikabide gehienek, orain arte bezala, begiak itxiko dituzte egoera larri honen aurrean. Euren erresposabilitatea izango da. Gu ezin gintezke geldirik egon gure senideak poliki-poliki itotzen ari direnean.


Azkenik, eskerrik berroenak eman gura dizkizuegu antolatutako ekintzetan parte hartu duzuenoi eta presoan egoera larri hau gizarteratzen saiatu zareten guztioi. Baina, egoera larri hau ez da amaitu eta benetan larria da. Horregatik, orain arte bezala lanean iharduteko eskatuko genizueke, presoek bizi duten egoera larri hau gizarte osoak jakin dezan. Besterik gabe, bihotz-bihotzetik, Mila Esker!

**ARRASATEKO SENIDEAK**

**URTE BERRI ON!**

**Hemen duzue urteko azken ARRASATE PRESSa, urtarrilaren 15a arte ez baikara berriro zuekin izango. Ordura arte, pare bat desio: bata, topikoa, baina ez horregatik gezurra, urte ona izatea; bestea, berriz, gure itzule-  
ra arte 175. zenbaki hau gozatzea, Urte Berrirako opari praktikoa dakarrena, Cesar Cimiano "Txifi" k egindako egutegia. Ondo bukatzea, ondo hastea bezain inportantea ei da!!**

**Elektroinjekzio  
Zerbitzua**



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

# Urteko gauza txarrena eta onena?



**Ana Alonso  
Langilea (21 urte)**

Gauza on bakarra oporrak izan dira eta txarrena, bada ez dakit, auskalo!




**Belarmino Bouzon  
Garraiolaria (62 urte)**

Txarrena, txarrena krisia, langabezia eta egoera ekonomikoa litzateke, enpresa asko pikutara doaz eta; onena? egin duen euri piloa, osterantzean...



**Arantxa Azpiazu  
Etxekoandrea (29 urte)**

Urteko gauzarik txarrena gerra izan da, onena, ez dakit... langabezia jaitea akaso.



**Pello Altube  
Ikaslea (15 urte)**

Beharbada krisia izango da txarrena, eta egin diren gauzak ondo ez irtetea, Expoa eta horiek; onenak, neure gauzak, aprobatezea, bestela ez dakit.



**Luis Velasco  
Langabetua (25 urte)**

Orokorrean oso gauza on gutxi, ez nuke jakingo zer esan, agian, baina kirol-mailan bakarrik, Olinpiadak, politak izan ziren eta. Okerrena, guztiok dakigu, inguratzen gaituen egoera.



**Esther Saez de la Cuesta  
Ikaslea (18 urte)**

Zaila da eh! ez dakit, krisia, langabezia... urtea desastre-desastrea izan da.



**Erich Michbronn  
Dendaria (64 urte)**

Orokorrean krisi ekonomikoa eta Jugoslabiakoa aipatuko nituzke, lotsagarria XX. menderako; Somalia ere hor dago; onena... beno ez dugu hain eguraldi txarrik izan, behar beste euri egin du.



**Elena Galdos  
Jubilatua (83 urte)**

Beno, aurtan gauza onik ez zait gertatu. Ibili ezina etorri zait eta mundua ere txarto ikusten da, geroz eta okerragoa.

**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

**Berango**



**Sukalde-  
altzariak,  
mahaiak eta  
aulkiak.**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g. Gipuzkoa Etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Gipuzkoa:  
bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**



kutxa

gipuzkoa  
donostia kutxa  
caja gipuzkoa  
san sebastián

# 93rako desiorik?




**Jon Telleria**  
Langilea eta ikaslea  
(22 urte)

Idearik ez, ezer txarrik gertatzen ez bazait, ondo.



**Lurdes Bengoa**  
San Andreseko *Todo a*  
100 dendakoa  
(23 urte)

Loterixie.




**Juan Antonio Azkoaga**  
Fagorreko langilea  
(35 urte)

Yugoslabiakoa konpon-tzea. 3. mundurako soluzio-ren bat, guk geuk gutxiago gastatzea eta elkartasun gehiago izatea. Eta HIESaren-tzat sendagairen bat aurkitzea.




**Ana Boisa**  
Dendako langilea  
(23 urte)

Beharbada topikoa izan-go da, baina gerrak bukatzea gustatuko litzaidake, eta kri-siak ez eragitea, ez niri eta ez ezagunei ere.



**Nekane Bergaretxe**  
Etxekoandrea  
(57 urte)

Osasuna, pakea eta lana.



**Igor Revuelta**  
Ikaslea  
(11 urte)

Mendiko bizikleta eta arropa eta gerra bukatzea.



**Amaia Yarza**  
Ikaslea  
(11 urte)

Munduan pakea egotea eta pobreek ere denetarik izate, denok berdinak izan gaitezen.




**Igor Arrieta**  
Dekorazioko ikaslea  
(20 urte)

Musika taldeentzat la-guntzak eta urtean zehar kontzertu gehiago antolatzea eskatuko nuke.

ACUVUE™

Botatzeko  
lentilak

Johnson & Johnson



**GARAGORRI**  
OPTIKOAK

Iturriotz, 29  
Tfnoa: 79 16 98  
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13  
Tfnoa: 76 13 73  
BERGARA



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Eritetxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 52
Aramaio .....	(945) 45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulantziak .....	45 87 44
<b>Udaltzaingoa</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
<b>Garraioak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Monterrongo liburutegia</b>	
Monterron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Osteguna 31**  
Egunez: Alberto Azkoaga. Ferrerías.  
Gauetz: Alberto Azkoaga. Ferrerías.

**Ostirala 1**  
Egunez: Corcuera. Musakola.  
Gauetz: Puy. Barrenkale

**Larunbata 2**  
Egunez: Irizar. Erguin.  
Gauetz: Guallar. San Antonio.

**Igandea 3**  
Egunez: Amezua. Santamaina.  
Gauetz: Guallar. San Antonio.

**Astelehena 4**  
Egunez: Aurora Ruiz. Maala.  
Gauetz: Estella. Matxiategi.

**Astearte 5**  
Egunez: Morales. San Andres.  
Gauetz: Mozos. Pedro Deunaren.

**Asteazkena 6**  
Egunez: Azkoaga. Ferrerías.  
Gauetz: Camacho. Oxirondo.

**31 OSTEGUNA**

**GABON ZAHAR EGUNA**  
Gabon Zahar eguna. Urteko azken eguna.

**PRESOEN ALDEKO BRINDISA**  
Presoen aldeko brindisa. Arrasateko Etxerat tabernan. Gaueko 1etan.

**1 OSTIRALA**

**ZINEA**  
"Boomerang: El príncipe de las mujeres" (7,10)

**URTE BERRIKO MEZA**  
Urte Berriko meza Parrokian. Eguerdikio 12etan.

**2 LARUNBATA**

**ZINEA**  
"Boomerang: El príncipe de las mujeres"(5,7.30,10)

**URTE BERRIKO KONTZERTUA**  
Urte Berriko kontzertua. Bergarako musika eskolako gazte bandarekin. Aita Menniko Areto Nagusian.

**ANALISI TRANSAKZIONALA IKASTAROA**

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak, analisi transakzionalari buruzko ikastaroa antolatu du urtarrilaren 19tik aurrera. Norberaren nortasuna ezagutu, norbere buruaz izaten den irudia aztertu, harremanak osatu, entzuten eta ikusten ikasi...horixek helburuak. Bi maila bereiztuko dira: alde batetik hutsetik hasiko direnak eta bestetik aurretik lehen maila gainditu dutenak. Biak arratsaldetan izango dira, asteartero 4etatik 6etara eta 6.30etatik 8.30etara. Izena emateko, zentrura zuzendu arratsaldez.

**AEDko LUDOTEKARAKO IZENAK EMATEKO EPEA ZABALIK**

AEDko ludotekan parte hartu nahi duzuen guztiok izena emateko epea zabalik duzue. Haur guztiei jolasteko eta jolasak eskuratzeko errezitasuna ematea izango da helburua; bi txanda izango dira: 1,2,3, eta 4. mailako umeak arratsaldeko 5etatik 6.30etara eta 5,6,7, eta 8. mailak 6.30etatik 8etara. Larunbatetan, eskolaurreko 1,2, eta 3. mailakoentzat eta ordutegia 10etatik 1etara izango da. Lau hilabeteko 500 pezeta kobratuko da.



ARTIKILLU

**MUSIKA HAMABOSTALDIA**

**Aita Menni Ospitalean musika hamabostaldia antolatu dute. Pasa den 19an hasi zen eta datorren urtarrilaren 4an bukatuko da. Bihar larunbata urte berriko kontzertua izango da, Bergarako musika eskolako gazte-bandarekin. Eta datorren**

**astelehenean Amurrioko Mariaka abesbatzak eta Legazpiko jubilatuen egoitzako abesbatzak kontzertua eskeinituko dute. Kontzertu biak Aita Menniko Areto Nagusian izango dira, arratsaldeko 5etan eta sarrera dohanik.**

**EUSKAL HIZKUNTZALARITZAREN INGURUKO IHARDUNALDIAK**

Bergarako UNEDen, euskal hizkuntzalaritzaren inguruko ihardunaldiak izango dira datozen lau hilabetetan. Urtarrilaren 9an hasi eta datorren apirilaren 3an bukatuko dira. Lehengo hiru hitzaldiak, Miren Azkarate Euskaltzain eta irakasleak emango ditu: "Hitz-elkarketa: definizioa eta osaera", "Hitz elkarketa: sailkapena (I)" eta "Hitz elkarketa: sailkapena (II)" izenekoak. Larunbatero izango dira hitzaldiak, 9.30etatik 13.15etara.



**3** IGANDEA**ZINEA**

"Boomerang: El príncipe de las mujeres" (5,7.30,10)

**ARGAZKI ERAKUSKETA**

"Union Cerrajeraren suntsipena" erakusketaren inaugurazioa. Monterronen. CCOO, LAB eta ESKK antolatuta.

**4** ASTELEHENA**ZINEA**

"Boomerang: El príncipe de las mujeres" (7,10)

**ABESBATZEN KONTZERTUA**

Amurrioko Mariaka abesbatza eta Legazpiako jubilatuen egoitzako abesbatzaren kontzertua. Aita Menniko Areto Nagusian. Arratsaldeko 5etan.

**5** ASTEARTEA**ZINEA**

"Boomerang: El príncipe de las mujeres" (7,10)

**ERREGE KABALGATA**

Errege kabalgata. 7etan. Arrasateko kaleetan zehar: Abaroa, San Andres, Monterron, Ferixalekua, Sebero Enparantza.

**GABONETAKO SASKIBALOI LEHIAKETAKO FINALERDIAK**

Gabonetako saskiboi lehiaketaren finalerdiak lau onenen artean.

**6** ASTEAZKENA**AKORDEOI KONTZERTUA**

Eskoriatzan, Akordeoi orkestraren estreinaldia. Eguediko 13,30etan. Herriko Plazan.

**GABONETAKO SASKIBALOI LEHIAKETAKO FINALA**

Gabonetako saskiboi lehiaketaren azken partidua.

**GABONETAKO SASKIBALOI LEHIAKETAKO FINALAK**

Kuadrilen arteko saskibaloi txapelketa jokatzeko ari da Gabonetan. 21 taldek hartu dute parte eta datorren urtarrilaren 5ean eta 6an jokatuko dira finalak. Sailekatutako taldeekin bi multzo egiten dira eta 5ean jokatuko dute final erdian lau onenek. Bestalde, 6an azken partidua jokatuko da, txapelketa erabakitzeko balioko duena.

**HARATUZTEAK 93 IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA**

Datorren otsailean ospatuko diren haratuzteak iragartzeko kartel lehiaketa kalean dago jadanik, eta lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 21a izango da. Saria, 50.000 PTAkoa da.

**TXIKILANDIA ZABALIK**

Datorren urtarrilaren 2tik 5a bitartean zabalik egongo da Txikilandia, Kiroldegian goizeko 11etatik 2etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara. Sarrera: 250 PTA. Lau egunetarako bono berezia ere eros daiteke 750 PTAan.



**Velez-en Yehudaren aurkezpena**

Josemari Velez de Mendizabalen *Yehuda* liburuaren aurkezpena egin zen Monterronen. Liburuia eta egilearen aurkezpena Joxe Aranzabalek egin zuen, eta Josemari Velezek berak ere hitz egin zuen; hilaren 24ean, berriz, liburu azokan izan zen, liburuak sinatzen.

**HBren mitina Herriko Plazan**

Jon Idigoras eta Joxe Mari Olarra HBko mahai nazionalako partaideek, euskal preso politikoei elkartasuna adieraziz, mitina burutu zuten Herriko Plazan. Batak zein besteak, euskal presoen giza-eskubideen aldeko aldarrikapenak egin zituzten.

**Gurutze Gorria bazkide bila**

Deba Garaiko Gurutze Gorria, laguntza ofizialik jasotzen ez duenez, bazkide bila dabil. Erakunde honek bailadan 3 anbulantzia eta erreskaterako unitate mugikorra ditu. Informazio gehiagorako, 76 55 76 telefonora deitu.

**Erabaki garrantzitsuak urteko azken Udal Plenoan**

Azken 15 urteetako azterketa ekonomiko eta industrialaren egiteko mozioa onartu zen hilaren 18ko



**LAB desmantelamenduaren aurka**

Bailarako elkarte anonimo eta kooperatibetan gertatzen ari den lanpostuen galera dela eta, LAB sindikatuak prentsaurrekoa burutu zuen Monterronen. Prentsaurrekoan LAB-ekoek, erakunde ofizialetan jasotako datuak erabili zituzten, adierazgarrienak hauek: Elkarte Anonimoetan 1982tik 1991ra 2.500 lanpostu galdu dira; epe berean, Kooperatibetan, 533. Aipatutako denboran, Elkarte Anonimo eta Kooperatiben artean 43 lantegi itxi dira. Azkenik, epe motzera 450 lanpostu gal zitezkeela adierazi zuten prentsaurrekoan. LABeko ordezkari-egoeraren erantzunkizuna PSOE eta PNVrena zela, eta egoerari buelta emateko subiranotasuna ezinbestekoa zela adierazi zuten. Asteburuan, LABekoek argazki-erakusketa jarri zuten Seberon, itxi diren edo lanpostuak galdu dituzten lantegiak erakusteko.

Plenoan. Horretaz gain, ARKOekin lau urtetarako hitzarmena sinatzea onartu zen. AUKEAko gerentea eta Zerbitzu inspektorea aukeratzeko oinarri berriak ere onartu ziren.

**Musika Hamabostaldia Aita Mennin**

Urtarrilaren 4a arte, Aita Menni Ospitalean Musika Hamabostaldia burutuko da. Hamabostaldiaren inaugurazioa

hilaren 21ean izan zen, Arrasate Musikaleko ikasleek eskeini zuten kontzertuarekin; herenegun, berriz, Inuzente Egunez, Bergarako Musika Eskolako gazte-taldearen kontzertua burutu zen. Hamabostaldia bukatzeko, urtarrilaren 4ean Amurrioko Mariaka abesbatza eta Legazpiko jubilatuen etxeko abesbatzek eskainiko duten kontzertua entzuteko aukera aparta izango da.

**Artxiboko dokumentoak jaso Eusko Ikaskuntzak**

Eusko Ikaskuntzak Erdi-aroeko Euskal Herriko dokumentoen beste liburu bat aurkeztu zuen, 1260-1400 urteei dagokiena, Arrasateko Udal artxibategian jasotako dokumentuz osatuta. Arrasateko dokumentuekin egindako liburu kolekzioaren 45.a da. Aurkezpenean Udaleko ordezkarienez gain, Jose Luis Orella kolekzioaren zuzendaria, Maria Jesus Aranburu kultur diputatua eta lanaren egileak izan ziren.

**Lau autobus Arrasate-tik Herrerrera**

Nahiz eta zeharo beteta ez joan, Herrera de la Manchako espetxerako martxara lau autobus abiatu ziren Arrasate-tik. Autobus-ek ez zuten inolako arazorik izan Herrera inguruetara iristeko eta ezta bueltan ere. Aurten azkenengoz egin da martxa.

**JAIOTZAK**

- Alexander Altuna Velasco. Abenduaren 21ean.

**HILDAKOAK**

- Eusebio Balanzategi Uriarte. Abenduaren 16an. 75 urte.
- Jose Ignacio Zubeldia Etxebarria. 16an. 47 urte.
- Rosario Gorosabel Amozarrain. 17an. 87 urte.
- Mariano Gil Teran. 18an. 61 urte.
- Juana Eraña Gorriti. 18an. 77 urte.
- Javier Ziganda Goñi. 18an. 69 urte.
- Pedro Garitano Astigarraga. 23an. 93 urte.

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84


FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

# Loriodak




ARABA ETORBIDEA, 18  
ARRASATE (GIPUZKOA)  
(943) 797333



Kirol bakoitzerako erantzun bat.

ORAIN MENDIZALEENTZAKO SEKZIO BEREZI BAT ERE BAI

Astore  
North-Face  
Millet  
Marmot  
Saleva  
Lowe  
Duofold  
Helly Hansen  
Rivori Joanny  
Vessant  
Trango  
Boreal  
Bestard  
Roca  
Kamet



ARRASATE


KIROLAK

Kontzeziño, 8

Telefonoa: 79 46 12 / 77 12 47

ARRASATE





MIKEL IRIZAR \*

# Udalari, esker onez

**Abenduaren 18ko** plenoan ARKOrentzat garrantzi handia duen erabaki bat hartu zuen Arrasateko Udalak: ARKOri 92an eman beharreko dirulaguntza arautzen zuen hitzarmena beste lau urtez luzatzea. Honek esan nahi du, ustekaberik gertatu ezean, aurtengoaren mailako dirulaguntzak jasoko dituela ARKOk ondoko urteetan. Edo bestela esanda, datozen lau urteetako aurrekontuen %45a nahiko seguru daukalla gure elkarteak. Enpresa munduan dabilenak badaki zer nolako garrantzia duen datu honek, bizi dugun egoera ekonomiko nahasian. Eskerrak, bera, Arrasateko Udalari.

Eta eskerrak, aparte, beste bi arrazoi konkretuengatik. Bata, akordioaren balioa 1996rarte luzatzea,

hau da, hurrengo udal hauteskundeak baino haruntzago. Eta bestea, akordioa aho batez onartu izana. Puntu batak nahiz besteak garbi

.....

*“96rarte luzatzeak eta erabakia ahobatez hartzeak garbi adierazten dute Arrasateko alderdi politiko guztien artean ARKOri buruz dagoen adostasun baikorra”*

adierazten dute Arrasateko alderdi politiko guztien artean ARKOri buruz dagoen adostasun baikorra. Horregatik ere, eskerrikasko.

Baina esker onekoa izatearekin ez da kontua bukatzen. Udalaren eta herri osoaren konfidantzaren ordainean erronka berriak ipini nahi dizkiogu ARKOri datozen urteotarako. **ARRASATE IRRATIA** Sanjuanetarako nahi dugu martxan, lege berriaren baitan, eta horrekin batera ATB eta A. PRESSeko aldaketa teknologikoa 93a osatuko genuke, produktuak gero eta profesionalagoak izan daitezten. Ahaztu gabe, noski, edukietan eta estiloan eman behar dugun saltoa, geure komunikabideek ondo bete dezaten Arrasateko informazio-iturri eta iritzi-emai-le handienari dagokion lana. Azkenik, guretzat oso inportantea den barnegitura eta dinamika sendotzen jarraituko dugu, diruiturri propioak finkatuz, diru publikoaren errapetik edateak sortzen ei duen lozorroak ez gaitzan harrapa.

\* ARRASATE KOMUNIKABIDEAK (ARKO) ELKARTEKO LEHENDAKARIA.

## USTEAK USTE

**HALAKORIK BERRIRO EZ!**

**Agur 92! Etorri hintzena baino harrotasun txikiagoz hoa. Iritsi hintzenarako Madrileko sasi-nagusiek galarik dotorenekin jantzi hinduten: 500 urteetan sortutako mixeriek estaltzeko, Expoko ospakizun garestien kapotea; azaleko zimurren aurka, berriz, Olinpiadetako urre, zilar eta brontzezko kremak; eta zerbait somatuz altxa ziren eskuentzat, paradisu europearraren promesaz egindako eskularruak. Baina denborak zatartu hau, Expoko kapotea adabakiez jositako zaku zaharra besterik ez duk, eta Olinpiadetako kremen disdira zeharo urtu den moduan, betiko europearrendandik sortzen den haize hotzerako alperrak dituk promesaz egindako eskularruak. Eta 365 egun berandua go, euskaldunok zer? ba antzera: zaharrago, langabezi gehiagoz, industri-guneak basamortu burutzen, abertzaleok banatuta, Estatutoaren bidea agortuta eta Burujabetasunaren trena hartu ezinda... ea datorren urtean. Ordura arte, Urte Berri On guztioi, preso, errefuxiatu eta deportatuei batez ere.**


BEÑARDO KORTABARRIA

Uste berri on!  
**K**abia altzariak  
 Gipuzkoako Etorbidea, 28  
 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

**ITURRIOTZ**  
 taberna  
 1993an ere girorik jatorrena!  
 Tfnoa: 79 16 04



**Guzti hau irudi berri baten  
hasiera baino ez da,  
profesionaltasun garbiko  
bidean.**



**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-  
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.  
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta  
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak  
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-  
biko bidean.**



Kroaziara joan zen argazkiko taldeaz gain, herrian bertan laguntza emateko aukera ere badago

# Bosniara laguntza eramanez lanean dabilta oraindik

Jon Ander Mendieta atxabaltarra eta Josu Errarte arrasatearra Burgosko beste sei lagunekin batera, Kroaziarantz abiatu ziren lau furgonetaz osatutako konboi bategaz. Lau furgonetatan, negua igarotzeko arropa eta oinetako egokiak eraman zituzten, furgonetariko bat Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletan bildutako arropa eta oinetakoz beteta. Horretaz gain, aipagarria da Burgosko lantegi batek Kroazian errefuxiatuta dauden bosniarrei eramateko, 10.000 galtzerdi pare eman zituela. Aipatutako konboia Gabon bezperan irten zen, urtarrilaren 7ra arte Kroaziako

errefuxiatu kanpamenduren batean geratzeko asmoz.


Errefuxiatu kanpamenduetan dauden bosniarrek, Deba Garaiatik jasoko duten laguntza bakarra ez da hori izango. Izan ere, Arrasateko SOS Balkanes taldea, Arrasaten bertan janari bilketa egiten ari da aspaldidantik, Azoka kaleko leian. Dagoeneko toki horretan janari piloa biltzea lortu dute: arropa, irina, pasta, olio, gailetak, esnea eta gatza batez ere. Horretaz aparte, banketxe bitan irekitako kontuetan 700.000 PTA baino gehiago batu da dagoeneko.

## Gizakia helburuko zozketa

● Gazteizko Gizakia  
● Helburu elkarteak 12 otar zozketatu ditu; horietatik 6  
● Arrasatera etorri dira.  
● Zenbaki sarituak: 2.185, 4.680, 6.549, 2.164, 4.679 eta 5.773. Otar sarituak hartzeko: 79 74 80 edo 79 38 76 zenbakira deitu.

## Aldaketak Euskadiko Kutzako kredituetan

● Abenduaren hasieratik etxebizitza erosi nahi duten kooperatibistek ez dute, aipatutako datara arte moduan, %10,5eko interes finkorik izango, Euskadiko Kutzak kredituen sistema aldatu egin baitu. Hemendik aurrera, kooperatibistei, etxebizitza erosterakoan, gainontzeko banketxeek ezartzen duten tipoaren %90ko interesa ezarriko zaie, eta sei hilabetero, *Mibor* interesaren arabera, aldatu egingo da hori. Gainontzeko mailegutan, %14'25a ordaindu beharko dute kooperatibistek; ez direnak, berriz, %17,25a.



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43  
ESKORIATZA



Datorren urtean Kiroldegiko bazkide izateko orain egin daitezte tramiteak.

## Kiroldegiko bazkide, aukera garestia jubilatuta eta ikasleentzat

Musakola eta Iturripeko kiroldegietako bazkide egiteko aukera zabalik dago eta horretarako kuota desberdinak daude: 20 urte baino gutxiago izanez gero 6.000 PTA, 20 urte baino gehiago izanda 10.000 PTA; familia kuota, 20 urte baino gutxiago duten seme-alabadun familientzat bakarrik, 15.000 PTAkoa da. Jubilatuek, 65 urte baino gehiago izanez gero, 3.500 PTA ordaindu beharko dute eta jubilatuta bikoteek 6.000 PTA. Langabetuek ez dute aukerarik kiroldegian dirulaguntzarik lortzeko, baina Udaletxean bideratu ditzakete Gizarte-laguntzailearen

bidez. 20 urtetik gorako ikasleek, berriz, ez dute laguntzarik jasoko. Orain arte, edozein adinetako ikasle edo jubilatuek laguntza jaso dute bazkide-kuota ordaintzeko; aurten ez jartzeak kexa eta baja ugari eragin ditu.

Iaz 9.400 pertsona izan ziren kiroldegietako bazkide, eta aurten antzeko bazkidekopurua espero da. Bazkideek gimnasio eta igarilekura ordaindu barik sartzeko aukera dute, gainontzeko zerbitzuez, kantxa, sauna, ikastaro eta abarrez baliatzeko, kuota ordaindu behar badute ere. Bazkide izan barik, kiroldegirako sarrera 500 PTAkoa da.

### Zabor bilketako ordutegia

Pasa den 24an bezala, Gabon Zahar egunez ere, zabor bilketa arratsaldeko 13.30etan egingo da.

### Amat Fagor Ederlanen sartu

Fagor Ederlaneko langileen asanbladak Amat kooperatibaren integrazioari baiezkota eman zion, %89 alde eta %11a aurka. Amaten, berriz, botazioa argiagoa izan zen, 208 langile integrazioaren alde eta 2 kontra. Integrazioaren ondoren, Fagor Ederlanek hedapen proiektuak garatu ahal izango ditu eta Amatek, kotxeentzako disko eta tanborrak eginez, nolabait etorkizuna ziurtatu egin ahal izango du.

### Besaideko Batzar Orokorra

Urtarrilaren 12an Besaideko Asanblada Orokorra egingo da, besteak beste zuzendaritza berria aukeratzeko.

Bestalde, bazkide egin, segurua berritu edo baja ematea urtarrilaren 5a aurretik egin beharko da.



# Zorionak!



# LASAGABASTER

## ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55




**9.30** Kalitate handiko **barazki eta fruituak** ikusteko aukera izan zen Azokan, baita gazta aukera zabala ere. Beharbada, hegazti gehiago ekartzea espero zen; oilar, ahate eta faisán batzuk izan ezik ez zegoen aukera handirik.; loragintzan, gauza bera. Dena dela, kalitate handiko jeneroa ikusi ahal izan zen eta lehiaketa desberdinetako epaileek ez zuten lan errazik izan.



**12.15** Eguneko sorpresa izan zen: **Joxe Bixente Etxabe**, Muxibarko artzaia aurrean zutela, 200 ardi inguru herriko kaleetan zehar ibili ziren. Gazteek ez zuten halakorik ezagutuko, baina Joxe Bixente eta bere ardien pasioak pertsona helduei seguruen txikitako oroimena ekarriko zien.



**10.30** Urtero bezala Santamasetan, Herriko Plaza **artisansuen topaleku** bihurtu zen. Egia esan, artisau gutxi bildu zen, baina oso gauza ikusgarriak ekarri zituzten, aurreko urteetan ikusi gabekoak: harriaren-lanketa, keramika desberdinak, tailaginak, argizariaren lanketa, antzinako pertsonaien irudiak, tanborileroak...



**12.30** Aizkolarien lana hasi zenerako, **Zaldibar jendez gainezka** zegoen, aizkolariek eta gero Gibitegi harrijasotzailerak ikuskizun ederra eskaini zuten. Aizkoran, zorte apur bategaz, Olasagasti irabazle; Gibitegik, berriz, Perurenaren errekorra berdindu zuen, 5 minututan 6 jasoaldi.

**aitzgorri**

LARRU eta LARRUKIAK

**LARRUZKO PRAKAK 15.000 PTatik AURRERA!!!**


Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE

BLUSAK  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XATHO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



## FERIA EGUNA

◆ **Santamasetako lehiaketetako irabazleak:**

Joxe Iturbe, Bedoñako *Bioso* baserrikoa barazkietan, Jose Luis Madina aramaioarra-fruituetan, Martin Oldarra tolosarra hegazti eta untxietan eta Jose Ramon Etxabe urretxuarra gazta lehiaketan.

◆ **Erreibindikapenak** ere kalean izan ziren. Urtero bezala Gestorak zozketatzen duen txekorra goizean goize-tik kalean izan genuen. Horretaz gain, sindikatuek, UCEMeko langileek, emakumeek, internazionalistek etab. mahaiak jarri zituzten.

◆ **Garibai etorbidean** arropa, larrua, turroia eta beste hainbat gauza erosteko aukera aparte egon zen. Sekula baino saltzaile gehiago bildu.

◆ **Txistorra** jatea ezinbestekoa da Santamasetan eta izan zen horretarako aukerarik ere. Besteak beste: Egiatan, HIES Ekimena eta Ekin Emakume taldeek txistorra saldu zuten.

◆ **Argazkilari** askok jaso zuten Santamasetako azoka, ekintza eta bestelako gauza bitxiak. Jende asko ikusi zen argazki-kamara eskuetan hartuta.

◆ **Txerriaren zozketa**, Santamas jaiari bukaera emanez gauerdiko berotasunean egin zen, saritua 4.709 zenbakia. Zorionak!



**14.00** Urtero gauza bera, batzuk zioten aurten oso jende gutxi etorri dela; beste batzuk, kontrakoa, sekula baino gehiago zegoela. Arrazoiak batzuk zein besteek izan, asuntxo da eguerdi alderako **kalean lasai ibiltzeko tokirik ez** zegoela, tabernak topetaraino beteta eta zerbait jan edo edateko bultzada ugari jasan eta denbora dexente itxaron beharra.



**15.00** Bostehunen bat lagun inguru bildu ziren Musakolako Kiroldegian Santamasetako **Herri Bazkarian**. Beti bezala, bazkariaren hasiera atzeratu egin zen, baina horregatik giroan ez zen beherakadarik eman, eta bazkalostean festarako duten trebetasuna erakusteko aukera izan zuten arrasatearrek.



**19.30** Andoni Egaña, Imanol Lazkano, Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelaiaren **bertso-saioa** ikustera jende asko hurbildu zen. Bi nobedade: tokia, Alai zinema; gai-jartzailea, Jon Sarasua.

Ongi etorri 1993!




PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 94

Urte berri on arrasatear guztiei!



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



**Gabonak etxetik kanpo**

Gabonak eta urte berria hemen dira. Jende guztia opariak, janari bereziak etab. prestatzen ari da. Herrialde batean, hemendik oso gertu, ez da Gabon ospakizunik egingo. Umeak gosez eta hotzez daude eta ez dute oparirik jasoko. Horrelakoa da oraingo gure herrialdea, Bosnia-Herzegovia.


Gabon gauean, zoritxarrez gure kide asko morteroen, hartzaren edo gosearen ondorioz, hil egingo da. Gu, berriz, bosniarrak izanda, hemen gaude eta ezin diegu lagundu, ezta inor salbatu ere, nahiz eta horretarako gogo handia izan. Gerra bukatu dadila! hori da gure desioa, berriz ere gure herrira itzuli ahal izan gaituzten Munduko gobernu guztiei laguntza-mezua luzatu nahi diegu, ahal duten moduan lagun gaitzaten, errugabeek bizirik gal ez dezaten. Gure mezua bat bakarra izan daiteke: bakea, bakea, bakea!!!

Eskoriatzan gauden bosniarren partez, Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On! irakurle guztientzat.

**SEILA DIZDAREVICH,**  
**ERREFUXIATU BOSNIARRA**  
(Erredakzioan itzulia)



Onaindia goxodenda.



Ehune oihaldenda.

**Argazkian ikusten dituzuen bi eskaparate hauek sari bereziak irabazi dituzte. Onaindia goxodendak Arrasateko lehiaketan lehen saria eskuratu du eta Ehune dendak Gipuzkoa mailako bigarrena. Ondo merezi-tako sariak!**

**Jon Salaberri** arrasatearra, **Eduardo Chillida** eta **Irene Lafiterra** artean agertzen da, 'Emaidazu eskua, ez da ezer gertatzen' **HIESaren** gaisoen aldeko kanpainan. Egunkari guztietan agertu da orrialde osoko argazkia.



AEDk urtero antolatzen duen liburu eta diska azoka zabalik izan dugu egun hauetan. Sebero Altuben jarritako azokara jende

ugari hurbildu da. Nobela eta liburu berriak, betiko ipuin eta istorioak, azken diskak...izan ditugu eskura.

**NAROKI**  
Urrezko bitxiak  
**NAROKI**  
Opariak, Jostailuak, Liburuak,  
Paperdegia  
Erdiko kale, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 47

**SAMEGO**  
GARBIKETAK  
Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

**Memesa**  
79 42 22

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria  
Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**IZEN PROPIOAK**

● **Nekane San Migel**, 39 urteko arrasatearra Tolosako Hirugarren Epaitegiko Lehen Instantzia eta Instituziozko epaile izendatu dute. Orain arte Pontevedrako Cangas de Morrazon aritu da urtebetez eta aurretik abokatu lanak ere burutu ditu Arrasaten. Aipagarria da hasteaz bat, Aritz Elosegi tolosarrari tiro egin zion ertzainaren epaiketa izango duela Nekanek eskuartean.

● **Onandia** goxodenda izan da aurtengo Gabonetako eskaparate lehiaketako irabazlea. Bigarrena **Tamayok** eta hirugarrena **Lasagabasterrek** irabazi dute. Eta, Gipuzkoa mailan, berriz, **Ehune** dekorazio eta oihal denak bigarrena irabazi du.

● **Ion** eta **Maitek** osatutako bikotea da Arrasaten ospatutako II. binakako fandango eta arin arin txapelketako irabazlea. 12 urtekoak eta bergararrak dira biak.



Txoronpio eta Txoronpia Arrasateko kaleetan izan ziren pasa den ostegunean. 12ak aldera irten ziren kalera eta Olentzerorentzako gutunak batu zituzten. Ume asko izan ziren eurengana hurbildu zirenak, baktotzak bere gutunaz.

Ohitura den bezala, Arrasateko kaleak zeharkatu zituen Olentzerok pasa den ostegunean. Arratsalde partean Herriko Plazan gozokiak banatu zituen eta gauez opariak etxez etxe. Horretaz gain, ikastetxetan ere izan genuen Olentzero.



KARMELO

Esatebaterako Gazteluondoko ikastolan arrakasta handia izan zuen. Karta behin baino gehiagotan botatzeko aukera izan dute, beraz, umeek. Eskatutako denak ekarri ditu?




**OKORETEGI**  
kafetegia

Juan Carlos Gerra Plaza. Tfnoa: 77 03 62  
ARRASATE

**Onduline**

**TXOMIN HERIZ**



eraikuntzarako  
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
ARRASATE

# Etixerat Taberna

## Etxean nahi ditugu!

Ondo pasatu  
Gabon zaharra!

Etxe txukuna  
Txoko kuttuna

*Ehune*

Apainketa

Otalora, 21 ARRASATE Tfnoa: 77 11 48


**SEAT**

**UDALAITZ, S.A.**



Hilabete honetan aukera berezia SEAT TOLEDO, IBIZA, eta MARBELLA modeluetan. Oso prezio onak. BISITA GAITZAZU

Bulegoa eta tailerra:  
Musakola Auzoa, z/g  
Bulegoa eta erakusketa:  
Zarugalde, z/g  
Tfnoak: 79 18 80 eta 79 21 25  
ARRASATE



Seat Toledo GT 16v.

● *Antton Perez de Calleja*

# Etorkizun beltzaren iragarle

**Antton Perez Calleja Zaurutzen jaio zen 1943an; Sarrikon ekonomilari ikasketak egin eta 1969. urtean Arrasatera etorri zen, Lan Kide Aurrezkian lan egitera. Hamabi urte ondoren, hura utzi eta zortzi urtez baserrian lan egin zuen, artzantzan batez ere. Orain, berriz, enpresentzako txostenak egiten dabil, aholkulari gisa.**

— Lan Kide Aurrezkiaz aspertuta?

— Ez, baina ez da posible bizi osoa gauza bera egiten ibiltzea eta nire ustez hamar urtetik behin aldatzea ona da, beste gauza batzuk egitea.

— Baserrian oraindik lanik egiten duzu?

— 1989an ardiak saldu nituenetik, ez. Ia 200 ardi izatera iritsi nintzen eta urtero 1600-1800 kilo gazta egiten nituen. Hortik oraindik eguneroko ogia atera daiteke, ez lantegi bateko soldatarekin, baina bizi izateko lain bai. Industriako langileek, goizean lanean hasi eta egun osoa gauza bera egiten pasatzen


dute; artzaiek aldiz, ardiak jaitsi, isturak jarri, garbiketak egin, txertoa... eginbehar ugari dago eta hori da duen erakargarritasuna. Gainera, baserriko lana fisikoki ez da esaten den bezain gogorra, lotura handikoa bai, baina gogorra ez.

— Krisia, zer?

— Luzerako dugu krisia. 93a oso gogorra izango da, 300.000 - 400.000 lanpostu inguru galduko dira Estatu espainarrean. Inbertsiorik ez da egingo eta ondorioz ez da hazkunderik izango. Estatuak berak ez du gaitasunik krisia konpontzeko, hemengo arazoak beti pagamendu balantza izan da, baita orain ere: guttia inportatzen dugu eta ia ezer ere ez esportatu.

— Estatuak ezin dio aurre egin, Jaurlaritzak?

— Gehiengoz, azpiegiturak egin ditzake, baina hori ere gaizki, funtzionarioz beteta dago eta. Jaurlaritzaren funtzionamendu-sistema ez da onena, hiru Udalerrri handi, hiru Diputazio, duplizitatea... Diputazioak kendu egingo nituzke.



— 93a txarra iragarri diguzu, nolakoa izan da 92a?

— Txarra hori ere, 200.000 lanpostu inguru galduko dira eta okerrean da enpresa gehienak ikututa daudela, eta zutik badaude 3-R plana bezalakoei esker da, bi edo hiru urte irauteko adabakiak, ez etorkizunera begira.

— Jendea nola ikusten duzu?

— Jendeak nahiago du zer gertatzen den ez jakitea, urtero %7a gehiago emango diotela pentsatzea. Langileen artean, norberekeria handiegia dago, gazteak eta emakumeak marginatuta, langabetuak zer esanik ez.

— Hainbeste kolore beltzen artean, lñurrategitarrak?

— Ah! noizbehinka berrezko talentoak sortzen dira,

ekonomian ez, baina beste arlo batzuetan bai, lehengai izugarri ona. Lagunak ditut, eta normala denez, ez nuen eragozpenik jarri dirua eskatzeko aukera izan zezaten txosten bat egiten laguntzeko eta jendearen aurrean aurkezteko. Iazko aurrekontua txikia izanda ere, asko kosta zitzaigun dirulaguntza lortzea. Hemendik aurrera seguru, ez dute azalpenik eman behar izango dirua eskatzerakoan, adituek diotenez momentuko mendizale onenak dira eta.

— Ideologikoki non zaude?

— Ez naiz sekula alderdi bateko militante izan. Euskalduna naiz, geure aukeren mugez jabetutakoa gainera; ikaragarria da ekonomia behera doala ikusi eta euskaldunok geure patrimonioa sortzeko gai ez garela eta ondorioz independentzia teoria guztiek ez dutela etorkizunik jakitea, ez baitago ekonomiarik gabeko politikarik. Euskadiko gaian sentimenduak baietz dio; errealitate ekonomikoak, berriz, ezetz.

● **“Luzerako dugu krisia, 93a oso gogorra izango da; 300.000-400.000 lanpostu inguru galduko dira”**

# Gabon zaharra, urtea ondo bukatzeko erak

Rosa Mondragon


**Eguberri eguna etxean eta senide artean pasatzeko gaua bada, Gabon Zaharretan, 12etako mahatsak jan, etxekoei urteberri ona opa eta kalera irteteko eguna izaten da. Irteteko asmoa duzenok, jakin ezazue Arrasaten aukera asko izango dituzuela bihar gauean.**

Afal-aurreko bueltatxoarekin hasten dira egun horretako ospakizunak. Aparteko pozarekin irteten dugu egun horretan kalera; ikasleak oporretan, nagusiak jai egun batzuk gozatzeko prest eta umeak egun berezi hauek jolasean pasatzeko irrikitan. 7ak-8ak aldera hasten da poteoa taberaz taberna: afal osteko zitak jarri, 92 urtea ondo bukatzeko eta 93a ondo hasiteko opa... Giroa epelduz doan heinean, afaltzeko gogo egin eta 9ak aldera etxeruntz hurbildu beharko dugu. Bertan bildutako senideen artean afaldu ondoren, 12etako mahatsak jan eta berriz kalera irteteko ordua heldu zaigu. Gaurkoan presarik gabe, urteko gaurik zoragarriena eta zoroena pasatzeko

gertu. Familia bakoitzeko anai-arreba guztiek egun horretan elkarrekin irtengo dute kalera, kurioa izaten da. Arrasaten, Arbolapetan izaten da lagunen arteko zita-lekua askorentzat, urte hasierako lehen laztanak emateko tokia. Eta hortik, bakoitzak bere giroa aukera dezala.

## BAKOITZA BERE GIROAN

Arrasaten gero eta tabera gehiago dira biharko egun ez euren atea zabaltzen dituztenak. Gau horretako edari "erregea" txanpana izaten da. Eta, nola ez, taberna horietan duzue giro desberdinetaz gozatzeko aukera. Esate baterako Biona eta Etxerat taberetan izango duzuen giroa izan daiteke aukeratuko duzuen bat. Esan beharra dago, ordu batean presoen aldeko brindisa egingo dela Etxerat tabernan eta Bionan, aldiz, Senideak taldekoak izango ditugu. Bertan biltzen den jendea gaztea izaten da gehien bat eta ordutegiari dagokionez, jendearen arabera itxiko dira taberna hauek. Baina gazte kuadrilak Erdialdeko hainbat tabernatan ere izango ditugu: Iskina, Udalaiz, Iturriotz eta abar. Eta Ispilu, Etxoste eta Haizea izango dira



**Azken urtetan  
gero eta jende  
gehiagok irteten  
du Gabon  
Zaharretan kalera**



berandu arte zabalik izango dituzuenak. Guztietan, konfite, zinta, serpentina eta jaietako beste txano eta kareetak banatu eta botako dira. Musika ere nahiko berezia izango da. Jai-giroko musika izaten da gau horretan gehien entzuten dena, eta nolabait jendea dantzara mugitzen duena. Horretaz gain, taberna batzutan erregali bereziak banatzen dituzte.

Beste giro bat Nebraska eta Cepelin aldean ikusi dezakeguna izaten da. Bertan, gaueko lehen orduetan gazteak izan badira ere, bikoteak, nagusien kuadrilak eta



ezkonduak izango dira bertan bilduko direnak. Betiko berezoak dira gehien bat gau honetan hara hurbilduko direnak.

#### AUZOETAKO AUKERAK

Kontutan izan behar da jende asko bere auzoetako

tabernetan geratzen dela. Esate baterako San Andres auzoan asko izango dira gau horretan zabalik izango direnak: Equs, Lennon, Itsaso, Linde eta abar. Kale bateko bi ertzetan kokatuta dauden taberna hauetan, jende gaztea biltzen da batez ere eta behar-

bada erdialdeko tabernak baino lehenago ixten dira. Eta San Andres aldean ia gehienek zabaten badute ere, Musakolan guztiz alderantzizkoa gertatzen da. Azken hiru urteotan zabalik egon den bakarra Txinato taberna izan bada ere, aurten horrek ere itxi egingo ditu bere ateak.

#### KOTILOIRIK EZ

Aurten ez da kotiloirik egingo Arrasaten. Aurreko

urteetan Musakolako Kiroldegian eta Ostarku diskotekan ere zan dira kotiloi bereziak. Hala ere, antolatzaileek esan digutenez, ez dute izan espero zen arrakastarik eta horren ondorioz, aurten ez da halakorik antolatuko. Esan beharra dago horrek baduela bere eragina beste tabernetan ere. Musakola aldean, taberna guztiak ixtearen arrazoia Kiroldegian jaialdirik ez izatea da.

## Zabalik izango direnak

Tabernak	Ordutegia	Adina
Iluntz	12.30-*	17-30
Iskina	12.30-6	17-30
Etxoste	1-6	18-30
Udalaitz	1-7	17-35
Iturriotz	1-*	17-30
Gure Leku	12.30-*	20-35
Biona	1-*	17-30
Irati	1-7	17-30
Jai Zale	1-*	18-35
Arrasate	1-5	18-30
Lorategi	12.30-7	17-30
Nebraska	12.15-6	20-40
Noski	12.30-*	17-30
Sokoa	12.30-*	17-30
Ispilu	12.30-*	20-30
Haizea	12.30-*	20-35
Whiskeria Linde	12.30-*	17-30
Lennon	12.30-*	17-30
Ekus	12.30-*	17-30
Itsaso	12.30-*	17-30
Iristu	12.30-*	17-30
Ostarku	2.30-8	20-40
Gaztetxea	12.30-*	17-30

(\*) Jendeak alde egiten duenean itxiko da.

Aipatutakoez aparte baliteke taberna gehiago ere zabalik izatea.

**SALBERRI**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



Azoka Plaza, 22.postua  
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE



**UXARTE**  
Kafetegia,  
gozotegia  
Gauzez irekita!!  
JO TA KE!!

Bañez dokorea, 12  
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62



Taldearen helburua, burutzen diren lasterketetara elkarrekin joatea da.

# Duatloi eta Triatloi taldea eratu da

Inguruan egiten diren lasterketetan parte hartzeko helburuarekin, arrasatear batzuk Duatloi eta Triatloi talde bat eratzen ari dira. Oraingoan, bost lagun bildu dira ideiarekin inguruan: Josemari Barrena, Lorenzo Alonso, Emilio Lizeranzu, Juan Antonio Fernandez eta Jose Galan. Bost lagun hauen ideia, hasieran behintzat, federatu eta burutzen diren lasterketetara elkarrekin joatea da; lasterketen antolaketa lanetan, berriz, ez dira taldea zerbait finkatu arte hasiko, baina ideia hortxe dago. Duatloi taldearen eraketak dagoe-

neko izan du oihartzunik eta arropa jartzeko bi patrozinatzaile agertu dira dagoe-neko, Bergarako *Rotulos Zabaleta* eta hemengo *Okendo Kirolak*. Ez da arraroa taldea sortu eta berehala komertzioaren lagun-

.....  
**“Triatloi taldean sartu nahi ezkerro, Iturripera agertzea besterik ez dago, egunero arratsaldeko Setatik aurrera”**

tza aurkitzea; Izan ere, taldeko bost partaideek makina bat lasterketa burutu dituzte aurten, emaitza onekin gainera. Beharbada kasu aipagarriena Jose Galan izan daiteke: Euskadiko Beteranoen Duatloi Txapelketako 14 lasterketatan parte hartzaile, eta hamahiru irabazi ondoren txapelduna izan zen.

Korrika, zein txirrianduan eta igerian ondo ibili eta taldeko partaide nahi duen edozein arrasatearrek, Iturripera agertzea besterik ez dauka, egunero Setatik aurrera han izaten baitira Duatloi taldeko partaideak.

## LABURRAK

### Santamasetako kiroleko irabazleak

**Santamas Krosa:** 153 korrikalari. 7 urtera arteko lasterketan Josu Galan eta Arantzazu Orue, 8 urtera artekoan Jon Loiti eta Alaitz Murua, 9ra artekoan Iker Lazpiur eta Ainhoa Zenigaoandia, 10 urtera artekoan Galdier Kabiketa eta Eneritz Merino, 12urtera artekoa Josu Arroiabete eta Maite Fuentes eta 14 urtera artekoan Vicente Robledok irabazi zuten. Kuadrilen arteko lasterketa, *Caracolestal*dearentzat.

**Santamas Pilota Txapelketaren emaitzak:** Gazteen arteko finalak eskuz eskuz. Aurrebenjaminetan, Oxel Etxeberria 18 - Aitor Arostegi 6; benjaminetan Aitzol Lazkano 18 - David Belategi 10; alebinetan, Iker Okaranza 18 - Mikel Etxebeste 11; infantiletan, Gaizka Murgoitio 18 - Aimar Dalmau 10; kade-tetan Garikoitz Uribarren 18 - Gorka Etxeberria 16; jubenetan Lordi Zuazubiskar 18 - Etor Goikoetxea 7.

**Herri Kirolak:** Larretxea, Mindegia, Arrospide eta Olsagastilanean. Hasieratik Larretxea eta Olsagasti aurretik; azken aurreko enberrera arte abantaila Larretxearentzat, baina aizkora hautsi eta Olsagastik aurrea hartu eta irabazi egin zuen, bigarren Larretxea, hirugarren Arrospide eta laugarren Mindegia. Harrijasotzen, berriz, Gibitegik Perurenaren errekor-raberdindu egin zuen, sei jasaldi bost minutuko txandan.



## Asteroko eskaintza

Abenduaren 30tik urtarrilaren 9ra bitartean

**%15eko deskontua LO EGITEKO ZAKUETAN**

**%10ekoa beste edozein artikulutari**

EBAKI ETA ERABIL NAZAZU!!



**Urizarre**

SPORT

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78 ARRASATE



PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

## IBABE GARAJEA


**MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



**PENALTIAK**

● Santamasetan jende asko etortzen da kanpotik, baita kanpoan dabilzan herritarrik ere. Bat behintzat ikusi genuen, Luis Mari Lopez Rekar-te, A Coruña-ko Deportivorekin denboraldi bikaina burutzen ari den arrasatearra. Santamasa-k ezezik, Rekartek Gabon Eguna ere hemen pasa zuen.



**Gipuzkoako Club-en arteko Txapelketan jubenilak finalerdietan**

Santamasetako eskuz eskuzko txapelketaz gain, Arrasateko pilotariak, behintzat jubenil eta infantilak, oraindik Gipuzkoako klub-en arteko txapelketa jokatzeko ari dira. Infantilen azken neurketa Oñatin izan zen eta jokaturako hiru partiduetatik, bi irabaztea lortu zuten. Beharbada hori baino interesgarriagoa izan zen Gonzalez eta Goikoetxea jubenilen lehia; Gipuzkoako finalerdietara iritsi ziren eta. Seguratarrek izan ziren Arrasatearren arerio, lehen partiduan 22 eta 20 Berasategi eta Hombre seguratarren alde; bigarrenean, 22 eta 14 berriz ere Segurakoen alde.

◆ ◆ ◆  
**Samur irabazi ze-nuen Santamase-tako pilota finala?**

Finalerdia baino samurrago, finalerdian Igor Gonzalez izan nuen aurrean eta nahiko lan eman zidan, 12 edo 13 tantu egin zizkidan.



**Lordi Zuazubiskar, Santamasetako pilota txapelduna**

**LARRINGAN AUTOESKOLA**

**Gidatzeko irakaskuntza eta praktikak Arrasaten bertan!!!**



C-2. Trailerra



D. Autobusa



A-1 eta A-2.



B-1.




B-2.



C-1.

**Praktika egiteko ibilgailu eta pista propioa dituen autoeskola bakarra Arrasaten**  
Garibai Etorbidea, 5 Tfnoa: 79 22 96 ARRASATE



BEROGAILU  
ETA GAS  
INSTALAZIOAK

**CLREGAS**

Garro Jenerala, 2-1 ezk. Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE  
Romualdo Galdos, 22. P-13. Tfnoa: 11 40 64 EIBAR  
Particular de Ategorrieta, 2 etxabea. Tfnoa: 27 39 20 DONOSTIA



*Jai goxo eta zoriontsuak!*



Parques  
y Jardines

**Parke eta lorategien  
sorkuntza.**

**Larazaintzako  
mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza  
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



*Ruth* **GATZAGA**  
jatetxea

**URTE BERRI ON!**

**IGANDE  
EGUERDIETAN  
ERE ZABALIK!**

Laneko bazkariak  
Lagunarteko askariak  
Bikoteentzako bazkariak

Giro ona, sukalde ona eta familiako tratua

**GURE BEREZITASUNA:  
SASOIAN SASOIKO PERRETXXIKOAK.**

Olarte kantoia, 3  
Tfnoa: 79 59 57  
ARRASATE

## SUTONDOAN

## Mikolasen astoa eta Osinaldeko Joxanton (II)

Gure mutila ez zegoen bere onean ere eta galdetu zion Martini:

— Hoiek bazihoaztek eta gu noiz irtengo gaituk?

— Ezkerreko eskua non daukaten ere ez dakiten horiek baino lehen iritsiko gaituk gu geure etxeetara eta lasai egon hadi, nik esango diat garai denean eta.

Handik egun gutxira, ta lehengokoen antzera, beste hiru edo lau talde ere irten ziren honerako. Joxanton berriz, geroago eta urduria-go zihonan eta berriz ere Martini:

— Ia bakar batzuk besterik ez gaituk hemen geratzen eta bihar bertan behintzat abiatu beharko gaituk.

— Oraindik astia sobra diagu, egon lasai, esango diat eta.

Gure mutilari Martinen jokera bakan eta ohieza iduritzen zitzaion. Konturatuta zegoen jai egunetan ere, albo herri txiki bateko bezperak entzuteko aitzakiarekin lagun artean ere oso gutxi agertzen zela baina horrelakorik eta gutxiagorik ere ez zuen uste eta berak nahi zuen arte ez ahorik irekitzea erabaki zuen.

Heldu zen noizbait Gabon eguna eta arratsaldeko lauretan esan zion Martinek:

— Jaso ditzagun lansariak eta gerta gaitezen etxerako.

ARREGI TAR TIBURTZIO

# Garai bateko Santamasak

“Lehen, bai, lehen Santamasak...” gogoratzen du Joxe Letonak bere idazkien artean Ferianteak Udaletxeko Plazan kaxetak prestatzen gogoratzen dituzte adin batetik aurrera dutenek: jostailuak, goxokiak, oinetakoak... Alaitasun handiz bizi izaten zuten umeeek Santamasaren prestakuntza, saltzaileek mailu hotsez saltokiak josten zituzten bitartean.

Esaten dutenez, orain dela belaunaldi batzuetako mondragoetarrek, oinetakoak eta erropak erosteko Santo Tomasak iritsi arte itxoiten zuten, eta erropak urrututa zituelako kezak zuten umeari, “Itxoin, Santamasetan erosiko dizkizut polit-politak” erantzuten zitzaion.

Ganaduaren feriak ere berebiziko garrantzia izaten zuen, eta baseritar guztiak domeketako bruxa jantzita eta abarka berriekin etortzen ziren kalera. Ganaduaren salerosketa amaitutakoan, eternaldia egiten zen eta tabernara joanda, makailoa eta kuartilo bat arda baltz hartzen zen. Etxera beti eramaten ziren goxokiren batzuk.

Dantzaldian ere sekulako jendetza biltzen zen, Viteri eta Garibain, txistua, dan-



bolina, dultzaina eta soinuak alaituta. Dantza suelta izaten ei zen nagusi, eta plaza beti gainezka, euria edo elurra ere ia gehiengan egin arren. Biteriko Eskoletako jardinean ere egin ei zen azken urteetan.

Historialariek diotenez, aurretik San Valerio ermitan ospatzen zen Santo Tomaseko feria; baina 1727ko Villafrancako Junten eraba-

kiz, halako guztiak herrigunera ekarri ziren eta 1926ra arte beheko portalean egin zen, Uherkapen ferixalekua egin arte.

Abenduaren 21, 22 eta 23an ospatzen zen azokaz gain, hilaren bigarren eta laugarren ostiraletan ganadu eta txerri azoka ere izaten zen, 1882ko maiatzaren 1etik aurrera hilean birritan.

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE



OTXOA

Hazi aukeratuak,  
pentsuak eta  
fitosanitarioak

Mondragones, 1 ARRASATE  
Tfnoa: 79 86 70



# MUGARRI



Urte berri ona opa eta 93 urteko gama berria probatzera gonbidatzen zaitu MUGARRIk ESCORT-ORION errebelazioarekin.

Zerbitzu berria: Gidari gabeko autoen alokaiurua!

Jai hauetan, zatoz  
**CEPA RIOJANAra**  
Jatetxea / Taberna

Ferrerias, 19  
Tfnoa: 79 20 02  
ARRASATE

# Erregeen kabalgata, umeen irudimenari hegoak jartzeko

**Herriko** parroki-taldeek eginda, Errege kabalgata izango dute ikusgai ume eta helduek urtarrilaren 5ean, Errege Bezperan. Kabalgata arratsaldeko 7etan irtengo da San Viator ikastetxe paretik, baina aurrez, hiru erregeek eta pajeren batek Abaroan daudenei bisita egingo diete. Ibilbideak ez du aldaketarik izango: Abaroa - San Andres - Monterron - Ferixalekua - Sebero enparantza.

150 lagunek hartuko dute parte Kabalgatan. Guzti horientzat erropak lortzeko bide desberdinetatik jo da: traje berriak egin, traje zaharrak berriztu, beste erropa batzuk alokatu; "lehengo arropa zaharrak-zioen antolatzailetariko batek-, eskudoak, geziak... ere erabiltzen ditugu, baina poliki-poliki bagoaz berrituz". Iaz, Kabalgatak 325.000 PTAko aurrekontua izan zuen.

## Kabalgataren nondik norakoa Arrasaten

Dena dela, Errege Kabalgata ez da betiko gauza, eta historikoki hartuz gero, nahiko modernoa dela esan daiteke. Izan ere, lehen Errege Kabalgata 1935. urtean egin zen, gerra-aurretik. Arrasaten egin zen lehen Kabalgata hura, EAJ-PNVk antolatu zuen, eta



Baltasar Erregea, beharbada ikusmin handiena sortzen duena.

hiru erregeak, Joxe Uriarte, Inazio Bedia eta Jose Antonio Goñi izan ziren. Hiru Erregeen tropela, herriko kaleak zeharkatu eta gero, kiosko inguruan geratu zen umei opariak banatzeko. Normala denez, gerrak,

beste hainbat gauza bezala, eten egin zuen Errege Kabalgataren ospakizuna eta gerra bukatu arte ez zen berriz hasi, 1942ra arte. Jose Egidazu, Eugenio Balzategi "Erregetxo", eta Albaro Oregi izan ziren gerra oste-

ko hiru erregeak.

Jose Maria Arizmendiarrietaren garaian, Acción Católicaak hasi ziren Erregeen Kabalgata egiten. Ordutik, eliza inguruko taldeen ardura izan da batez ere, orain urte batzuk San Viatorreko ikasleek ikasketa-bidaia ordaintzeko asmoz ardura hartu bazuten ere.

Garai batean edo bestean, ez dago dudarik oraindik ume askok ilusio handiz itxaroten dutela urtarrilaren 5a, ez umeak bakarrik, jakina!

.....

**"Lehen kabalgata gerra aurretik antolatu zen, EAJ-PNVren ardurapean"**



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
Akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

**Urte berri on eta martxosoa izan!**



929ko abenduaren 8an Zentro Katolikoaren Fundazioaren Zilarrezko eztaiak ospatu ziren, eta Elkartea horren sortzaile izen zen apaizari, **On Inazio Aldanondori** omenaldia egin zitzaion. Bezperan burutu zen ekitaldian, **On Jose Joakin Arin** parrokoak egin zuen aurkezpena, gero Fundatzaile omenduak hartu ei zuen hitza eta **On Antonio Pildain** kanonigoak ere egin zuen berba.

Ekitaldi berean Zentru Katolikoko orfeoia abestu zuen. Erretratu hau Kon-

tzeziño egunean atera zuten, omenaldiko bazkariaren aurretik.

Eserita daudenak, Juntako Beteranoak dira, ezkerretik hasita:

**Domingo Arrieta**, **Evaristo Axpe**, **Zipriano Resusta "Karririkirri"**, **Ajano Olazabal**, **Jose Mari Olazabal**, **Faustino Etxeberria** Lehendakaria, **On Inazio Aldanondo** (omendua, ordurako Bergarako Santa Marinako parrokoa; Ohorezko Bazkide Sortzaile izendatu zuten), **Eusebio Uranga**, **Saturnino Guridi**, **Bonifazio Maidagan**, **Nikolas Altuna**

eta **Pio Azkarate**.

Atzekaldean beste mondragoetar asko, ordena barik izen batzuk aipatzearen, **Madinabeitia "Porruena"**, **Jose Otadui**, **Jose Urrutia**, **Rufo Aranbarri**, **Basilio Villar**, **Bixente Mendizabal**, **Jose Azkoaga**, **Esteban Garai**, **Bixente Velez de Mendizabal**, **Bittor Arriaran**, **Joakin Azkoaga**, **Juan Zaitegi**, **Zelestino Otadui**, **Jokin Zaitegi**, **Jesus Uranga**, **Angel Uranga**, **Bixente Uribetxebarria**, **Juan Goñi**, **Enrike Sodupe**, **Santiago Olazabal**...




BITXITEGIA

*Karmele*

ERLOJUDENDA

**Erloju eta bitxiak**  
URTE BERRI ON!


Inazio Zuloaga, 10  
Tfnoa: 77 07 41  
ARRASATE



**Saioa Fernandez,  
2 egun.  
Mondrautarra.  
ORAIN AMAREN  
BULARRETIK  
EDATEN DU...**




**... LASTER OINEZ  
IKASIKO DU.  
GERO,  
BERBETAN HASIKO  
DA, ETA...**



**... IKASTOLARA  
JOANGO DA...  
SAN FRANTZISKO  
XABIER IKASTOLARA,  
JAKINA!**

**KASTOLA**  
*Jakina*



# URKULU AUTOAK


Peugeot-Talbot Agentzia Ofizial berriak bere instalazio berriak bisitatu eta Peugeot-93 auto gama berria ezagutzera gonbidatzen zaitu.




Zaldispe, 2  
(Eskualdeko  
Ospitalen ondoan)

Tfnoa: 79 97 12

ARRASATE



## LORATEGUI




**URTE BERRI  
ON!**

c/ iturriotz 7  
arrasate  
tel 790467



# ZER NAHIAGO?

## J. Jose Saenz Mendizalea



- **Gabon Zaharra ala Eguberri eguna?** Eguberri eguna, Udalaitzera joateko eguna da eta.
- **Gabonetako egunik politena?** Santamasetako eguna.
- **Eta gutxien gustatzen zaizuna?** Gabon Eguna, erlijio kutsu gehiegi du eta.
- **Urte berri egunean Udalaitzera igotzeko asmoa, ezta?** Bai horixe, dudarik gabe.
- **Bixamonarekin ala ondo lo eginda gero?** Gu-  
txienez 5 ordu lo eginda.
- **Kuadrila osoa joaten zarete?** Bai, 15 lagun in-  
guru joaten gara, "Zortziko kuadrila" osoa.
- **Egun horretan aldapak latzagagoak dira?** Bai,  
bixamon apur bat izaten dugu eta...
- **Ze enkantu dauka Udalaitzek, bada?** Egun horretan enkantu berezia, urtearen lehen eguna  
da eta lehen igoera.
- **Eta elurra egiten badu?** Berdin igoko dugu, ez da oztopo izango. Igo genuen lehen urtean  
ere edurrez zuri zuri zegoen.
- **Zenbat denboran igoko duzu?** Patxaraz igo ezker, bi orduan.
- **Botak ala zapatilak jantziko dituzu?** Botak, beti jazten ditut mendira joateko.
- **Zer egoten da goian?** Giro aparta, salda beroa, txanpana...
- **Ze adinetako jendea joaten da?** Denetik, baina gaztetxoena, gaupasa egiten dutenak  
batez ere, lehenak iristen dira.
- **Joateko asmorik ez duenari, zer esango zenioke?** Bada, horixe galtzen duela.
- **Urtean zehar askotan igotzen duzu Udalaitzera?** Ez, hiru aldiz edo, baina mendira jai egun  
guztietan joaten naiz.
- **Mendirik gustokoena?** Denek dute bere enkatua, baina bat aukeratzekotan, Aratz auke-  
ratuko nuke.


## BERTSOAK

### Aurtengo Gabonetan

Aurtengo Gabonetan norbait agurtzean elkarrri uste onak ahoz luzatzean ez dadila gelditu formula hutsean opa dezagun dena osotasunean lana eta pakea askatasunean.

*Ator Ator* kantatuz sendi eta lagunak nabarmentzen zaizkigu etxeko hutsunak gogoratuz gehien maite ditugunak Beleneko estalpe hotz eta ilunak eta Espainiako espetxe lizunak.

**AITOR SARASUA**



# URONDO

## elektrizitatea

- \* **Elektragaiak**
- \* **Instalazioak**
- \* **Automatismoak**
- \* **Argiztapena**
- \* **Bobinaketak**
- \* **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76  
ARRASATE

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- Pisu batean elkarbizitzeko lekuri baldin baduzue dei egizue tfno. honetara (945) 89 10 91. Monika.
- Leioako pisu baten beste lagun batentzako lekua daukagu. Tfnoa: 79 36 58.
- Logela bat alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Bilbo ondoan ikasleen pisu baten leku bat behar dut. Dei egin 76 38 73 tfnora. Eguardiko 12.30etatik 13.30etara. Felix.

**Lana**

- Esperientziadun neskak pertsona nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 72 92.
- Esperientziadun txoferra C1, C2 eta D karne- tekin, lan egiteko prest. Dei egin 79 60 16 tfnora. Pello.
- Zure etxea txukuntzen lagunduko dizut. Gauzak zintzilikatu, apalak edo tendereteak jarri, kurtinen riak jarri... edo konponketa txikiak: elektrogailuetan, altzarietan... Konsultetarako dei egin 79 80 25 tfnora.
- OHoko klase partikularrak emango nituzke arratsaldeko 7etatik aurrera. Informazioa: 79 52 15 tfnoan.
- Edozein lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 52. Anton.

- Latinezko klase partikularrak behar ditut. Dei egin 4etatik 8.30etara. Garbiñe.
- OHoko 8. mailako hizkuntza eta matematikako klase partikularrak behar dira. Tfnoa: 79 41 72. Mari Jose.

**Salerosketak**

- Razesa markako karreretako txirrindua salgai. Oso egoera onean dago eta merkea da. Tfnoa: 79 97 69. Iban.
- Opel Corsa GSi salgai. SS-96 53 AJ. Tfnoa: 76 63 18. Maite.
- "Kamet 6°" mendiko botak salgai. Oso egoera onean daude. 45 zenbakia. Tfnoa: 79 25 10. Igor.
- Kitarra anplifikadorea salgai. Peavey "Heritage" 130 Watts balbuladuna, bi sarrera, bi kanal, reverb., eta fase efektuak, soinu aukera zabala. Prezioa: 75.000 PTA. Tfnoa: 79 25 10.
- Bi urteko Citroën AX 14 TZD 5 atekoa salgai. Tfnoa: 77 02 55. Eguerdiko 1etatik 2etara.
- Salgai Taunus Vulcano 10-F berogailu-haizagailua 6.000 PTA. Mepamsa 542-DSE butanozko berogailua 13.000 PTA. Dei egin 77 06 90 tfnora. Kepa.
- Bulegoko hiru aulki gurpildun salgai 5.000 PTA bakoitzak eta bulegoko beste lau aulki normalak 10.000 PTA. Dei egin 77 06 90. Kepa.

**Denetarik**

- PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak) eta "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotinak salgai. Tfnoa: 77 06 90. Kepa.
- Buzoneorako prest. Enpresa eta erakundeen iragarki banaketa egiten dugu. Tfnoa: 79 35 02 (Goizez).
- Bi hilabeteko katua erregalitzen da. Tfnoa: 79 52 37. Agurne.
- San Judas Tadeori bederatzirena. Jesusen bihotz santua, izan bedi maitatua, aintzatua eta babestua mundu guztian, orain eta beti. Jesusen bihotza, otoitz gure alde. San Judas, etsita daudenei laguntzen diezuna, otoitz gure alde. Egizu otoitz hau bederatziz egunez eta zortzigarrenean argitaratzea agindu. Eragin handikoa da; izan ezazu fede eta mirariak ikusiko dituzu. R. O. L.
- Kontzesiño egunean pultsera bat galdu nuen "Rosi" izenarekin. Topatu duenak dei egin dezala 79 18 80 tfnora.
- Santa Barbaran koker txakur bat galdu zitzaidan, topatu baduzu dei egin tfnora honetara: 77 03 69. Arratsaldeko 7etatik 9etara.
- "Nati" izena jartzen duen pultsera bat galdu nuen hilaren 11n edo 12an. Topatu baduzu, dei egin mesedez 79 21 03 tfnora. Saritu egingo da. Nati Baskaran.

**Aste Gazte**

**Bekak**

• Euskal Autonomi Elkarteko Unibertsitateetako ikasleen eguneroko garraio gastuetarako diru-laguntzak. Ikaslearen etxebizitza eta unibertsitatearen arteko distantzia, gutxienez 25km-koa izan behar du. Epea: urtarrilak 21.

• 1993ko udan Belgikan frantsez hizkuntzaren ikas-taroak burutzeko bekak. 35 urtetik beherako lizentziatunahiz karrerako azken ikas-

turteko ikasleei zuzendua. Epea: otsailak 1.

**Lana**

• Pasaiako Udalak honako lanpostu hauek betetzeko deia egin du: errenta eta exakzio teknikaria, zergabiltzaile teknikaria, gazteria eta kirol-tako dinamizatzaila, administrazio orokorreko administrataria eta 3 administrari laguntzaile. Oinarriak: 92 - 12 - 04 GAO. Epea: abenduak 31.

**Lehiaketak**

- Bilboko Ihauteriak iragartzeko kartel lehiaketa. Sari bakarra: 200.000 PTA. Epea: urtarrilak 8.
- Arrasateko Haratuzteak iragartzeko kartel lehiaketa. Sari bakarra: 50.000 PTA. Epea: urtarrilak 21.

**Gazteentzako Informazio Bulegoa oporretan**



• Gabonetako oporrak direla eta, urtarrilaren 7ra arte Bulegoa itxita egongo da. Txoko honetatik Jai Zoriontsuak opa nahi dizkizuegu.

**"Gaztetasan ezaz aparte, ez zegoen inongo gai amankomunik gonbidatuen artean, ezezagunak ezezagunen artean ematen zuten".**

**T. CAPOTE  
"BREAKFAST AT  
TIFFANY'S"**

**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**

GILTZAK • LLAVES • KEYS • CLES • CHIAVI • SCHLUSSEL



**JMA** 

**ALEJANDRO ALTUNA S. A.**

Bidekurtzeta, 3. Apdo. 70

20500 MONDRAGON (Guipúzcoa)Spain

Tfnos.: (943) 79 30 00 - 79 33 32

Telefax (943) 79 72 43. Telex 38838 JMA E

## Kontxita Garro

# Eskarparaterik politenaren egilea

Onandia goxodendak irabazi du aurtengo Gabonetako eskaparate lehiaketa. Azken zazpi urteotan apaindu dute eskaparatea eta lehen saria irabazten duten bigarren aldia da aurtengoa.

— Urtero adornatzen duzu eskaparatea, ezta?

— Bai, orain dela zazpi urte zabaldu nuen goxodenda eta ordutik urtero adornatzen dut. Eskaparate handia eukiz, denbora asko sartzen dut adornatzen. Baina ez lehiaketa irabazteko, asko gustatzen zaidalako baizik, dekoratua aldatzea eta noizean behin zerbait berria sartzea.

— Ez da irabazten duzun lehen saria, ezta?

— Ez, bigarren saria beste bi alditan irabazi dut eta aurtengoa bigarren aldia da lehena irabazten dudana.

— Eta zer izaten dute zure eskaparateek berezirik?

— Bada, ez dakit esaten. Jai egunetan egiten ditut eta maitasun askorekin egindako eskaparateak dira. Horretaz gain, gure generoak ere asko laguntzen dit. Gozokiek, tartek, bonboiek eta horrelako gauzek lagundu egiten



didate eskaparatea adornatzen. Segun zein den generoa, mota desberdinetako eskaparateak egin daitezke.

— Zer izan behar du eskaparate batek jendea erakartzeko?

— Alde batetik, bakoitzak saltzen duena erakutsi behar du eta bestetik, osagarri batzuk ere izan behar ditu. Niri, adibidez, kolore doratua, gorria eta berdea asko gustatzen zaizkit eta horregatik kolore horietako paperak erabili ditut asko, lazoak egiteko batez ere. Horretaz gain, senarrak eginiko txokolatezko txerriak eta semeak eginiko erlojuak eskaparatea osatzen lagundu didate. Nire ustez ezagutzera emateko eta publizitatea

egiteko beste bide bat da eta nahiz eta halako gauzak egiteko diru asko gastatu behar izan, uste dut merezi duela, kaleko jendeak baloratu egiten du eta.

— Horri buruz, ikastaro batzuk ere izan dituzue?

— Bai, ikastaro horretan, Ibai Arteko dendari gehienok egon ginen. Eta egia esan, uste dut denok ikasi genuela asko. Alde batetik, denda bakoitzeko eskaparateak aztertzen genituelako eta bestetik ideia berriak ikasten direlako.

— Nola ikusi dituzu beste eskaparateak?

— Uste dut urtez urte maila asko igo dela. Lehen oso gutxi izaten ginen eskaparatea adornatzen genuenak, baina urteekin, gero eta dendari gehiago animatu da eta aurtien batez ere, ia gehienek jarri dute zerbait.

— Ehune dendako eskaparateak Gipuzkoako bigarren saria irabazi du; gustatu zaizu?

— Bai, asko gainera. Baina beste estilo bateko eskaparatea da. Oso eskaparate kokettoa, euren produktuarekin erlazionatutako eskaparatea. Txoko berezia da nire ustez. Enkantu pertsonala du.

## Bi erakusketa zabalik

**Julio Galarta** pintore arrasatearrak, Harresi Aretoan zabalik duen pintura erakusketa datorren urtarrilaren 9an itxiko da. 37 kuadroz osaturiko erakusketan bodegoiak eta inguruko herrietako tokiak ikus daitezke: Arrasateko auzo eta kaleak, Aramaio, Durango, Oñati, Eskoriatza, Donostia... Errealitateko paisaiak duten naturalitatea bere kuadroetan erakusten digu.

**“Union Cerrajeraren suntsipena”** Abenduaren 2tik 13ra bitartean, CCOO, ESK eta LAB sindikatuek antolatu duten “Union Cerrajeraren suntsipena” izeneko argazki erakusketa egongo da zabalik. Bertan UCEM enpresaren sorrera, urteetan izan diren aldaketak eta gaur egungo egoera azaltzen dira.

## Sketch lehiaketa

Euskadiko Kutxak umeei zuzendutako sketch lehiaketa antolatu du. Euskara zuzen erabili eta istorio bat ongien eszenifikatzea da lortzea da helburua. OHoko Goiko Zikloa eta IEE edo BBBko Lehen Zikloko ikasleak aurkez daitezke. 1993ko urtarrilaren 14a baino lehen igorri beharko dira ikastetxe, ikasgela, eszenifikazio eta irakasle arduadunaren datuak Euskadiko Kutxaren edozein suskurtsaletara. Martxoaren 28an emango dira irabazleen izenak.

**beatriz**

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



**JOSU**  
TXOKOLATEGIA  
KAFATEGIA

Elkano, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66

**VE ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**ALDIZKARIAK**

UNION  
CERRAJERAREN  
SUNTSIPENA



COMO SE  
DESMANTELA LA  
UNION CERRAJERA

**“Union Cerrajeraren suntsipena”**

CCOO, LAB eta ESK sindikatuek “Union Cerrajeraren suntsipena” izeneko aldizkaria atera dute. 200 Pezeta balio duen aldizkari honetan atal desberdinetan banatzen da: Sorrera, Galdutako aukerak, Bergararen aldeko apostuak, Langileen papera... Sorreratik izan den prozesua jarraitzen da.

SAN VIATOR IKASTOLA



**“San Viator ikastola”**

“San Viator ikastola” izeneko aldizkaria atera du aurten ere San Viatorrek. Ikastolari buruzko informazioa zabaltzea izan da helburu nagusia; maketa-tzailea Koldo Rodriguez izan da eta inprimategia Gertu.



4 urtetik 14 urtera arteko umeen topagune bihurtuko da Musakolako Kiroldegia.

**‘Txikilandia’, jolasa umeen eskura egon dadin**

**Azken** hiru urteetan bezala, Txikilandia Gabonetako parkea zabalik izango da Musakolako kiroldegian, urtarri-laren 2tik 5era, biak barne. Txikilandia egunero goizeko 11etan irekiko da eguerdiko 2ak arte; arratsaldean, berriz, 4etatik 8ak arte izango da zabalik.

Feria zabaltzen den une beretik, umeen gozamenerako bi motatako ekintzak izango dira Musakolako kiroldegian: alde batetik jolasteko tresnak, ohe elastikoak, zezen mekanikoa, gaztelu puzgarria, tren txikitxo bat...; bestetik, tailer bereziak, globo eta aurpegien marrazketa, maskaren lan-keta. Horretaz gain, Txikilandia

zabalik dagoen denboran, herriko kaleetan zehar tren txikitxo bat ibiliko da, igo nahi duten ume guztiak pasia eman dezaten. Ekintza berezien artean, aipagarria da egun bitan rokodromoan ibiltzeko aukera izango dutela umeek eta beste bitan ur-jolasak egiteko.

Jakina denez, Txikilandia

.....  
**“Egun bitan rokodromoa egongo da eta beste bitan ur-jolasak”**

4 urtetik 14 urtera arteko umei zuzenduta dago; beraz, normala izango da haur asko gurasoekin sartzea, beste asko kuadrila galanta hartuta joaten badira ere. Batzuk eta besteek, haurrek eta gurasoek sarrera ordaindu beharko dute, aurten 250 PTAKoa. Txikilandia egunero joateko asmoa dutenentzat, garesti izan ez dadin, beste txartel berezi bat jarri da, 750 PTAKoa eta egunero erabiltzeko balio duena. Txikilandia sarrera bezala, kalez kale ibiliko den trena erabiltzea ere ordaindu egin beharko da, 100 PTA bidaiako. Aurten Txikilandia 6 milioitako aurrekontua izango du.

**TORRES  
OINETAKOAK**

Maala Errebala 23, Tfnoa: 77 14 34 Arrasate



· ESAERA ZAHARRA ·

*"Eguberri, eroak  
igerri;  
urteberri oiloaren  
arrabete"*

· JEROGLIFIKOA ·

...- R...  
...- R...

Elurra... ari du.

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13			14		
15				16			17
18						19	
		20				21	

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Egoeraz aldatu. 9. Bukatuak. 10. Musika nota. 11. Gerla. 12. Euskal Nekazarien Batasuna. 14. Radioa. 15. Zerbait idatzi duena. 18. Substraikizun. 20. (Ald.) Atzeka arraundu. 21. Eta.

**Bertikalak** 1. Zaldibar Futbito Txapelketaren ekipoa. 2. Astearen 7. eguna. 3. Esnatu aurretik. 4. Fotografia. 5. Kultur eta turismo ekintzatxea. 6. Aldez aurretik. 7. Pisuhi. 8. Ukatu aditzaren infinitiboa. 13. Bakoitzak bat. 16. (Ald.) Zibor. 17. Txarra ez dena. 19. Alde hemendik.

· HOROSKOPOA ·

**Aries** Nork dio ez direla betiko garai onenak?

**Taurus** Datorren urtean gehiago pentsatu beharko duzu besteengan.

**Gemini** Urte gogorra izango dela? ez behintzat Geminientzat.

**Cancer** Ez zaizu urte osoan ezer txarrik gertatuko, eta hori ez da gutxi.

**Leo** Hemengo panorama ikusita, onena ingelesa ikasi eta aldegitia.

**Virgo** Istripuren bat izateko arriskua duzu eta gainera langabezian geldituko zara.

**Libra** Ez zaitetz hain ezkorra izan, negar besterik ez duzu giten.

**Scorpio** Kirola egitea ez da txarra, zigarroak erretzea bai, ordea.

**Sagitaris** Egunkaria bezala, zu ere dirulaguntza beharrean izango zara.

**Capricorn** Ez zaitetz hain jeloskorra izan, aholku ona da urte hobeia izateko.

**Aquarius** Olentzerok ezer ekarri ez badizu, Erregeekin ez izan esperantzarik.

**Piscis** Ikaslea bazara, suspentsoak; langilea izanda, errekonbertsioa, etorkizunik eza.

URTE BERRI ON  
ARRASATE!!



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95  
ARRASATE

## • NESKA MUTIKOEN GOMENDIOA •

## • PROGRAMAZIOA •



**Gabonetako oporrak:**  
1etik 10era.

**'Mondragol' bereziak:**

- Urtarrilaren 3an.  
8.40etan: Mondra-Durango
- Urtarrilaren 6an.  
10etan: Bermeo-Mondra
- Urtarrilaren 10ean.  
10etan: Mungia-Mondra

## • SOLUZIOAK •

**JEROGLIKOKA**  
Mara-mara.

Ona. 19. Ur.  
Tara. 8. Uka. 13. Bana. 16. Liz. 17.  
Lo. 4. Argazki. 5. Kie. 6. Aurrez. 7.  
**Bertikalak** 1. Bateke. 2. Igande. 3.  
21. Ta.  
Ra. 15. Idazle. 18. Kenkizun. 20. Aiz.  
tuak. 10. La. 11. Gerra. 12. Enba. 14.  
**Horizontalak** 1. Bilakatu. 2. Agor-

**GURUTZEGRAMA**

Argazkian ditugun hiru mutikote hauek *Txikilandiara* joatea gomendatzen dute. Bakoitzak bere lehenetasunak ditu. Esate baterako, Ohier Fuentes, 7 urte, marraztea da gehien gustatzen zaiona: gabonetako jaiotzak, gurasoak eta bere lagunak marrazten ditu *Txikilandian*. Ainhoa Aranzadik, 11 urte, ohe elastikoa gomendatzen digu, baina, askotan txanda tokatu arte, denbora asko egon behar izaten da zain. Itoitz Errastik, 11 urte, zezen mekanikoa du gustokoen eta, joaten den bakoitzean laupabost aldiz ibiltzen da.



# Zorionak! Urte berri on!



CITROËN ZX 16v.



## Chapime tailerrak

Araba Etorbidea, z/g  
Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22  
ARRASATE

**Zatoz  
ikustera!**

# TYKKILANDIA

ARRASATEKO  
Kiroldegian

1993 ko

urtarrilak

2 tik  
5 era

